

Tras nuestra comparecencia en la mesa de la Comisión de Empleo, Políticas Sociales y Juventud como colectivos, movimientos sociales, sindicatos, entidades sociales, plataformas y redes del Tercer Sector de Euskadi nos posicionamos ante la Proposición de ley para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social.

POR UNA RGI QUE ACABE CON LA POBREZA. MURRIZKETARIK EZ!

En concreto, **PEDIMOS** que en la próxima legislatura se retire o, cuando menos, se modifique de manera sustancial la Proposición de Ley para la Garantía de Ingresos y para la inclusión social presentada por PNV y PSE y cuya toma en consideración se aprobó en el Pleno del Parlamento Vasco el 27 de junio de 2019.

Hay que tener en cuenta que este pasado año se planteó de nuevo la reforma del sistema de protección social a través de la Proposición de Ley para la Garantía de Ingresos y para la inclusión social. Así, desde el Parlamento Vasco, la mesa de la Comisión de Empleo, Políticas Sociales y Juventud acuerda convocar a diferentes entidades, grupos, colectivos sociales o redes del Tercer Sector de Euskadi a comparecer en el Parlamento a fin de que pudiéramos realizar nuestras aportaciones en relación a la citada proposición.

Este sistema necesita ser REFORZADO, ACTUALIZADO Y MEJORADO desde el análisis de la realidad para la mejora de la vida de las personas. Instamos a las instituciones a que doten a este sistema de la legitimidad social y política necesaria, así como a que pongan a disposición del sistema el compromiso y los medios suficientes para acabar con la pobreza y la exclusión social en Euskadi;

En nuestro territorio:

- Las mujeres recogen el 55% de los casos de pobreza real.
- Las familias monoparentales encabezadas por mujeres recogen un 30% de la pobreza.
- 172.307 personas (el 8% de la población) vive en riesgo de pobreza (tiene menos de 541,27 euros al mes para vivir).
- 484.571 personas (el 22,4% de la población) vive en situación de riesgo de ausencia de bienestar (viven con menos de 811,90 euros al mes).

Además, debemos señalar que, de estas personas, según datos de la Encuesta de Pobreza y Desigualdades Sociales de Euskadi (2018),

- Una parte importante de la población en riesgo de pobreza no accede al sistema por diferentes razones (no cumplir requisitos de acceso, falta de información u otras cuestiones); hablamos de un total de 60.618 personas en 2018 (un 30,7% del total de hogares en riesgo).
- Una parte importante de la población que accede al sistema no sale de la pobreza. En concreto un 51,56% de las personas (70.348 personas) en el año 2018.

TRAS ESTE ANÁLISIS INSISTIMOS EN QUE:

- Es **NECESARIO** que **se desarrolle adecuadamente el sistema de Inclusión Social** y que se avance en el **reconocimiento de los dos Derechos**:
 - **Derecho a la Garantía de Ingresos**
 - **Derecho a la Inclusión Social**
- **DEBE replantearse la nueva conceptualización que da la proposición de ley a la “unidad de convivencia”**, ya que no tiene en cuenta la realidad actual de la sociedad vasca en cuanto a convivencia (no necesariamente teniendo vínculos afectivos o de otra índole). La limitación de una RGI por vivienda expulsará del sistema de protección a miles de Unidades de Convivencia que se ven a día de hoy obligadas a compartir piso por su situación de pobreza.
- Es **IMPRESINDIBLE** revisar los criterios de acceso para **que las personas** que se encuentran en situación de pobreza y exclusión social **puedan acceder a prestaciones sociales y tengan medios suficientes de subsistencia**, tal y como estipula la Declaración de los Derechos Universales.
- Es **URGENTE** que **se revisen las cuantías de las prestaciones y que se recuperen los recortes que se han realizado durante los últimos años** (la no aplicación de la subida del SMI sumada al recorte del 7%), con el

fin de posibilitar que las personas salgan de la pobreza. Debe proponerse un indicador estable, que sea suficiente para salir de la pobreza y revisable en función del nivel de vida.

- Es **IMPORTANTE** que sea **un sistema claro, accesible y entendible** por todas las personas y, en especial, por aquellas que deban hacer uso del sistema. El actual sistema es complicado de entender, la tramitación resulta compleja para parte de la población y hay elementos que suscitan diferentes interpretaciones, que pueden ocasionar problemas en detrimento de la garantía del derecho. Es igualmente importante que se dé una **interoperabilidad y coordinación entre los diferentes sistemas que permita una agilidad y mejora** en la gestión.
- Además, en la proposición de ley presentada, quedan muchos elementos sujetos a reglamentación posterior.

Se **DEBE PRESTAR ESPECIAL ATENCIÓN** a aquellos **colectivos de especial vulnerabilidad**, entre ellos a mujeres con problemas de especial vulnerabilidad y a las personas mayores:

- **Incluyendo la perspectiva de género en el propio diseño** de la ley, tal y como se dispone en los artículos 18 a 20 de la Ley 4/2005, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, que dispone que se *“ha de analizar si la actividad proyectada en la norma o acto administrativo puede tener repercusiones positivas o negativas en el objetivo global de eliminar las desigualdades entre mujeres y hombres y promover su igualdad”*.
- **Adaptando la Ley al Convenio de Estambul**, Convenio del Consejo de Europa **sobre prevención y lucha con la violencia contra la mujer y la violencia domésticas**, que forma parte de nuestro ordenamiento interno desde 2014; cambiando la utilización del término “violencia en el ámbito familiar”, de la actual proposición de ley, por una nueva definición que abarque todas las situaciones de violencia que las mujeres puedan padecer a consecuencia de la desigualdad de género.
- **Introduciendo la perspectiva del interés superior de la infancia**, tal y como estipula la Convención sobre los Derechos del Niño de Naciones Unidas y nos recuerda el ARARTEKO en recomendaciones del año 2015. Además, es **importante prestar atención a las personas que salen de nuestros sistemas de protección de infancia al cumplir 18 años**, además de apoyar los procesos de emancipación de las y los jóvenes.
- **Previendo medidas de atención y protección a las familias monoparentales** y en especial, aquellas **encabezadas por mujeres** que, como decíamos, sufren el 30% de los casos de pobreza en la CAE.
- **Revisando el concepto de núcleo pensionista** y haciéndolo extensible a familias con miembros que puedan tener pensiones por discapacidad, salud mental...
- **Poniendo especial atención a las personas con discapacidad**, sin mezclar conceptos como “dependencia” o “discapacidad” y garantizando el carácter público de todas las fases de procedimiento, sin establecer procedimientos específicos para personas específicas.
- **Cuidando la atención a personas refugiadas y apátridas, como algo necesario debido a las dificultades especiales** del colectivo y no debido a situaciones coyunturales **y revisando los conceptos jurídicos que hacen referencia a personas solicitantes de asilo**, poniendo especial cuidado en la redacción ya que pueden llegar a excluirse algunas personas en el intento de concretizar, como ocurre, en este caso, con las personas a las que se les ha concedido la residencia “por razones humanitarias.
- **Replanteándose medidas de atención y acceso de las personas con problemáticas graves de exclusión social** y garantizando su acceso al sistema.

Las comparecencias que hemos realizado desde las organizaciones hoy presentes, hacen aportaciones concretas encaminadas a dar solución a estos y otros problemas del sistema; en Euskadi la realidad social y las cifras de pobreza y exclusión social exigen hoy revisar y mejorarlo.

Enplegu, Gizarte Politika eta Gazteria Batzordearen aurrean agerraldia egin ondoren, Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala osatzen dugun kolektibo, gizarte-mugimendu, sindikatu, erakunde, plataforma eta sareek geure iritzia adierazi nahi dugu Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Lege-proposamenari dagokionez.

POBREZIA DEUSEZTATUKO DUEN DSBE BATEN ALDE. MURRIZKETARIK EZ!

Zehazki, **ZERA ESKATZEN DUGU: EAJk eta PSEk aurkeztutako eta Eusko Legebiltzarraren 2019ko ekainaren 27ko Osoko Bilkuran onartutako Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Lege-proposamena hurrengo legegintzaldian ezabatzea edo, gutxienez, nabarmen aldatzea.**

Kontuan izan behar da joan den urtean gizarte-babeserako sistemaren erreforma planteatu zela berriro ere, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Lege-proposamenaren bitartez. Hala, Eusko Legebiltzarreko Enplegu, Gizarte Politika eta Gazteria Batzordeko mahaiak deialdia luzatu digu Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko zenbait erakunde, talde, kolektibo eta sareri Legebiltzarrean agerraldia egiteko, aipatu proposamenarekin lotuta geure ekarpenak egin genitzan.

Pertsonen bizitza hobetu ahal izateko, **ezinbestekoa da sistema honek errealitatearen analisia INDARTU, EGUNERATU ETA HOBETZEA.** Sistema honi behar besteko zilegitasun sozial eta politikoa emateko eskatzen diegu instituzioei; izan ere, Euskadin pobrezia eta gizarte-bazterkeria deuseztatu ahal izateko, beharrezkoa da beren konpromisoa handitzea eta sistemaren zerbitzura baliabide gehiago jartzea.

Gure lurraldean:

- Emakumeak dira pobrezia-egoera errealean % 55en protagonistak.
- Emakumeak buru dituzten guraso bakarreko familiak dira pobrezia-egoeren % 30etako protagonistak.
- 172.307 pertsona (biztanleen % 8) bizi da pobrezia-arriskuan (hilean 541,27 euro baino gutxiago dute bizitzeko).
- 484.571 pertsona (biztanleen % 22,4) bizi da ongizate-gabezia arriskuan (hilean 811,90 euro baino gutxiago dute bizitzeko).

Gainera, beharrezkoa da hauxe azpimarratzea: Euskadiko Pobrezia eta Gizarte-desberdintasunari buruzko Inkestaren datuen arabera (2018),

- Pobrezia-arriskuan bizi den biztanleen zati handi bat ez da sisteman sartzen, hainbat arrazoi direla-eta (sarbide-baldintzak ez betetzea, informazio falta edo bestelakoak); guztira, 60.618 pertsona izan dira 2018an (arriskuan dauden familia guztien % 30,7).
- Sisteman sartzen diren biztanleen zati handi batek ez du pobrezia-egoera gainditzea lortzen; hain zuzen ere, 70.348 pertsona izan dira 2018. urtean (% 51,56).

AZTERKETA EGIN ONDOREN, ZERA AZPIMARRATU NAHI DUGU:

- **BEHARREZKOA da Gizarteratze Sistema egoki garatzea eta Eskubideen aitortzan aurrera egitea:**
 - **Diru-sarrerak bermatuta izateko eskubidea.**
 - **Gizarteratzerako eskubidea.**
 -
- **FUNTSEZKOA da lege-proposamenak darabilen « bizikidetzta-unitate » kontzeptua birplanteatzea,** ez baitauka kontuan euskal gizartean bizikidetzari dagokionez egun nagusi den errealitatea (ez da zertan lotura afektiborik edo bestelakorik izan). Etxebizitzako DSBE bakarra jasotzeko mugak babes-sistematik kanpo utziko ditu egun, pobrezia-egoerak eraginda, etxebizitza partekatu beharra duten milaka bizikidetzta-unitate.
- **EZINBESTEKOA da pobrezia edo gizarte-bazterkeria bizi duten pertsonak gizarte-prestazioak eskuratu ahal izateko irizpideak berrikustea, bizirauteko nahikoa baliabide izan dezaten,** Eskubide Unibertsalen Adierazpenak zehazten duenez.
- **PREMIAZKOA da prestazioen zenbatekoak berrikustea eta azken urteetan egin diren murrizketak berreskuratzea** (LGSren igoera ez aplikatzea, edota % 7ko murrizketa), pertsonak pobrezia-egoera gaindi

dezaten ahalbidetze aldera. Adierazle egonkorra proposatu behar da; pobrezia-egoeratik irteteko balio behar du, eta bizi-mailaren arabera berrikusi beharko da.

- GARRANTZITSUA da **sistema** pertsona guztientzat eta, bereziki, sistema erabiliko dutenentzat **argia, irisgarria eta ulergarria** izatea. Egungo sistema zaila da ulertzen, tramitazioa konplexua da herritar askorentzat eta zenbait elementuk interpretazio bat baino gehiago ahalbidetzen dute; horrek arazoak sor ditzake eta, ondorioz, eskubideak bermatzea oztopatu. Garrantzitsua da, baita, **sistemen arteko interoperabilitatea eta koordinazioa bultzatzea, kudeaketa arindu eta hobetu** ahal izateko.
- Gainera, aurkeztutako lege-proposamenean elementu asko daude gerora zehaztuko diren araudien menpe.
- ARRETA BEREZIA ESKAINI BEHAR ZAIE **bereziki kalteberak diren kolektibo** ei.
- Halaber, **legearen diseinuan genero-ikuspegia txertatu behar da** , Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 18tik 20ra bitarteko artikuluetan xedatzen denez: « *aztertu behar du administrazio-arau edo -egintzan proiektatu den jarduketak ondoren positiboak edo kontrakoak izan litzakeen emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeko eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean* ».
- **Legea emakumeen kontrako indarkeriari eta etxeko indarkeriari aurre egiteko Istanbuleko Hitzarmenera egokitu behar da** . Europako Kontseiluaren Hitzarmen hori gure barne-antolamenduan txertatuta dago 2014. urtetik eta, hala, egungo lege-proposamenean jasotzen den « familia barneko indarkeria » terminoaren ordean, definizio berri bat jasota dago, emakumeek genero-desberdintasunaren ondorioz jasan ditzaketen indarkeria-egoera guztiak barne hartzen dituena.
- **Hautzaroaren interes gorenari lotutako ikuspegia txertatu behar da** , Nazio Batuek sinatutako Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean xedatzen denez. Halaxe gogorarazten du ARARTEKOAK ere 2015eko gomendioetan. Gainera, garrantzitsua da **18 urte betetakoan gure babes-sistematik irteten diren pertsonen arreta berezia eskaintzea** , baita gazteen emantzipazio-prozesuei babesa ematea ere.
- **Guraso bakarreko familiei arreta eta babesa emateko neurriak aurreikusi behar dira** ; bereziki, emakumeak buru dituzten familiei zuzenduta, horiek pairatzen baitute EAEn pobrezia-egoeren % 30.
- **Pentsionista-nukleoaren kontzeptua berrikusi behar da** , eta bestelako pentsiodunak (urritasuna, osasun mentala...) barne hartzen dituzten familietara zabaldu.
- **Urritasun-arazoak dituzten pertsonen arreta berezia eskaini behar zaie** , « menpekotasuna » eta « urritasuna » gisako kontzeptuak nahasi gabe; eta prozeduren fase guztietan publikotasuna bermatu behar da, pertsona espezifikoenentzako prozedura espezifikokoak ezarri gabe.
- **Errefuxiatuentzako eta aberrigabeentzako arreta zaindu behar da, kolektiboak dituen zailtasun berezien ondorioz ezinbestekoa delako** (ez koiuntura-egoeren ondorioz); **eta asilo-eskatzaillei erreferentzia egiten dieten kontzeptu juridikoak berrikusi behar dira** , horien idazketan arreta berezia jarrita. Izan ere, kontzeptuak zehazteko ahaleaginean, baliteke pertsonaren bat kanpo uztea (hala gertatu da, kasu honetan, « arrazoi humanitarioak » direla-eta bizileku-baimena eskuratu duten pertsonekin).
- **Gizarte-bazterkeria larria bizi duten pertsonen arreta eta sarbide-aukerak emateko neurriak birplanteatu behar dira** , eta horiek sisteman sar daitezten bermatu.
- Gaur hemen bildu garen erakundeek, geure agerraldietan, ekarpenak egin nahi izan ditugu sistemaren arazo horiek eta beste batzuk konpontzeko. Izan ere, Euskadiko egungo errealitate soziala aztertuta, eta pobrezia zein gizarte-bazterkeriari dagokionez erregistratutako zifrak ikusita, ezinbestekoa da sistema osoa berrikustea eta hobetzea.

Redes y asociaciones del tercer sector, colectivos sociales y entidades sindicales

COLECTIVOS SOCIALES: Argilan-ESK, Argitan (Centro Asesor de la Mujer de Barakaldo), Asociación de Mujeres de Basauri, Asociación de Trabajadoras de Hogar de Bizkaia, Berri-Otxoak (Barakaldo), Danok Lan (Galdakao), Elkartzen, Iskanbila, La Posada de los Abrazos-Besarkatuz, Mujeres del Mundo, Oficina de Derechos Sociales de Portugalete, Oficina de información y denuncia de derechos sociales Erletxea-Irun, PAH Kaleratzerik EZ-PAH Bizkaia, Punto de Información sobre RGI (Santurtzi), Stop Desahucios Bidasoa-Gipuzkoa, SOS Racismo y Trabajadoras No Domesticadas.

SINDICATOS: CC OO, UGT, STEILAS y ESK.

REDES Y ENTIDADES DEL TERCER SECTOR SOCIAL: EAPN EUSKADI (Red europea de lucha contra la pobreza y la exclusión social, SAREEN SAREA (Red del Tercer Sector Social de Euskadi), CEAR Euskadi y Cáritas Euskadi.